

Prentsa dosierra



Ikur honek euskara
erabiltzeko aukera
bermatzen dizu



Euskaraz barra-barrak kontsumitzailea
erdigunean jarri eta espazioak
identifikatuko ditu euskara egunero
eroso eta lasai erabili ahal izateko eta
bizipen eroso eta positiboak bizitzeko.

(2023-04-03)

**Egitasmoarekin bat
egin dutenak**

60

herri

Zer da?

Herritarrek euskaraz hitz egin dezaketen guneak identifikatzen dituen ikurra da Euskaraz barra-barra. Kontsumitzailea erdigunean jarri eta estres linguistikoa murrizteko helburuarekin, Euskal Herri osora zabalduko da egitasmoa.

Euskaraz norekin? Non? Noiz? Inoiz bere buruari galdera hauek egin dizkietenei, marka berri honek bidea argitzen lagunduko die; ikusten duten tokian, euskara erabiltzeko aukera bermatuko baitie. Herri eta hiri batzuetan hasi eta urtetik urtera Euskal Herri osora zabalduko den egitasmo hau aukera leiho bat da guztiontzat. Beraz, zuek ere, **ikur hau ikusten duzuenean, egin euskaraz!**



Jatorria

Euskaraz barra-barra mezuak euskararen eten-gabeko erabilera islatzen du. Hori da markaren izena, lelo ere bihurtuta. Markaren izaera, muina, oinarria ideia argi batek barnebiltzen du: euskaraz uneoro eta nonahi egin daiteke, edo onomatopeiak sinonimo dituen hitzek dioten bezala: maiz, sarri edota etengabe.

Antolatzaileak

Euskaraz barra-barra koordinazio mahaia Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Nafarroako Euskarabideak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak osatzen dute.

Era berean, koordinazio mahaiaz gain, Euskal Herriko erakunde publiko zein pribatu ugarik, tokian tokiko euskara batzordeek eta hamaika boluntario eta entitatek ere osatzen dute egitasmoaren antolakuntza. Sare zabala ari da ehuntzen eta Euskal Herri osora zabalduko da pixkanaka.

Euskaraz barra-barra ekimen kolektibo sendo eta iraunkorra da. Euskal Herri osoan zehar, sare handi bat osatzen ari gara egitasmoa ahalik eta toki gehienetara zabaltzeko, euskal hiztunen hizkuntza eskubideak bermatzeko, bereziki baldintzarik zailenak dituzten eremu geografikoetan. Horregatik, maila guztietan eragin nahi dugu eta zuen jardunaren bitartez, ekimenari oihartzuna emanez, bultzada bat ematera animatzen zaituztegu.




Helburuak


Euskal Herriko ahalik eta establezimendu gehienetan euskara erabiltzeko aukera bermatzea da erronka nagusia, jarraian azaltzen diren helburuak oinarri hartuta:



Euskararen erabilera sustatzea, merkataritzaren sektorean eraginez



Herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatu eta bermatzea



Euskal hiztunen nahasmen eta estres linguistikoa murriztea



Euskararen biziberritzearen inguruan, kontzientziazioa eta konpromisoak sustatzea

“Marka honekin bat egiten duten establezimenduek, zer irabazia ere badute, zerbitzu hobea eskaintzen dute eta aukera ematen dute euskaldunak euskaraz egin dezagun”

Alex Aisa



“Pegatina jarri dugunetik, jendearen jarrera ona ikusten dugu, hasieratik euskaraz hitz egiten sartzen dira”

Garbiñe Bazan



“Euskaraz barra barra ikusten dutenean dendetan, badakit euskaraz hitz egiteko aukera izango dudala eta euskaraz artatuko didatela”

Aitzol Zeberio



Parte hartzeko, zer egin?

Sustatzaileak

Sustatzaile kontsideratzen da herri bakoitzean marka kudeatzeaz arduratuko den entitatea. Kasuan kasu, sustatzaile izateko aukera izango dute negozio handiek, betiere baldintzak betetzen badituzte, eta udalaren laguntza gabe ekimenak dakarren kudeaketa-lanak zein gainerako gastuak bere gain hartzen badituzte.

Jarraitu beharreko urratsak

- Ezer baino lehen, udalak ekimenarekin bat egiteko erabakia hartu behar du.
- Jarraian, eman izena Sustatzailea naiz atalean eta bete ezazu datuen galde-
tegia.
- Behin izena emanda, erabiltzaile eta pasahitza bidaliko dizkizugu.
- Sustatzailearen atalean beharrezko in-
formazioa eta materiala izango dituzu
eskuragarri.

Bete beharreko baldintzak

- Ekimena sustatu eta tokiko establezi-
menduekin koordinazio lanak egitea.



Establezimenduak

Edozein herri edo hiritako establezimendu guztiak sartzen dira multzo honetan, negozio-ildoak edozein delarik ere.

Jarraitu beharreko urratsak

- Harremanetan jarri udaleko Euskara Sailarekin, bat egiteko nahia adierazteko.
- Eskatutako datuak bete: izen komertziala, jarduera-adarra, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa, webgunea, sare sozialak...
- Establezimendurako beharko duten materialaren eskaera egin.
- Establezimenduan markaren ikur identifikagarria(k) ipini.

Bete beharreko baldintzak

- Establezimendua zabalik dagoen bitartean gutxienez langile bat izatea euskaraz zerbitzua emateko gai dena.
- Establezimenduko langile orok, euskal hiztuna izan edo ez, euskara erabiltzen duen bezeroari edota kontsumitzaileari lehen hitza eta azken agurra euskaraz egitea.
- Kontsumitzaileari euskara erabiltzeko aukera bermatzea.

Herritarak

Euskal Herriko herritar orori zuzendutako ekimena da, euskaraz bizi nahi duten edota euskarekiko konpromisoa duten norbanako guztiei zuzendutakoa.

Herritarrek topatuko dituzten egoerak

- Establezimenduaren erakusleihoan Euskaraz barra-barra ikur identifikagarria ikusten baduzu, egin ezazu euskaraz.
- Establezimenduaren barruan langile asko baldin badaude, bilatu ezazu Euskaraz barra-barraren identifikagarria duen langilea eta hitz egin euskaraz.
- Establezimenduaren kuxak Euskaraz barra-barra itsasgarri edo bestelako euskarriekin identifikatuta badaude, egin ezazu ordainketa euskaraz, pegatinadun kuxan.

e//



www.euskarazbarrabarra.eus



**HIRUKO
ITUNA**
euskara sustatzeko funtzioa



**ERIKO INBENTARIOA
GOBIERNO VASCO**
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
euskara

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque